


Euskararen oinarrizko 12 hitzen etimologia, gaur egun dauden teoriaren interpretaziotik

- ur: lur, elur
- iz: izen, piztu
- in: egin, eragin
- aba: neba, izeba
- egu: eguzki, eguna
- hats: hasi, hasiera
- eusk/erd: euskera, erdera



Bittor Kapanaga



Josu Naberan



Jesus Segurola



Imanol Mujika



Felix Zubiaga



Antonio Arnaiz



Urtzi Ihitza

UR ERROA

Naberan	Berba horren –r leuna denez, <i>uru</i> , <i>utu</i> edo horrelako sustairen batetik etor daiteke. Hipotesi gisa, *u(r)u-an, *u(r)u-en planteatzen dut, “uru edo uranotik –urtzitik- datorrena” esanahiarekin.
Kapanaga	*ur oinarrizko erroetako bat da, izatasuna adierazten duena
Segurola	Errekako ura goitik beera indartsu danean, aitz eta arri artean, “uu” edo “ulu” gogor jotzen du. Urak sortzen duen “uuu” ontatik jasotzen degu “u” sustarra. Uraren “u” sutar oneri, “r” sustarra ezartzen badiogu, “r” sustar hau, “u” izkiaz jabetzen da. Ur = U-dun
Zubiaga	Erra/ur dator hizkunez, sortzailea eta sorkaria bezala, edo arketipoa eta analogizatua. Goietako uinen multsoa Errak euri biurtzen zuela uste zan.

Ihiza	<p>LURrean URa dago. URetan URa dago. EgURatsean URa dago. SUtan U(R) dago, beraz SUak (SURya, SiRius, SiRio, SiRia, egUzki...) r eskatzen du. AdURrrean (boskarren osagaia edo elementua) URa dago.</p> <p>1. LUR. 2. UR. 3. EGURATS(A). 4. SU(R). 5. ADUR.</p> <p>UR: lehenengo 5 osagaietan (elementuetan) datzan energia, hasieran ilUna -U-, higiduraren indarRagatik -R- argitzen, gaRrbitzen doana.</p> <p>U= U=iluntasuna. R= higidura, indarra, iraultzaren mogimendua. Higiduraren dardaragatik, bibrazioagatik argitzen den URA.</p> <p>LU LURraren bi heren URa da. L = 0'33, UR = 0'66. Bat.</p>
Mujika	<p>Indar neurri gabea(rr) meakin dun gauza(u), mea ixurkian bizimena da, Ura da.</p>
Arnaiz	<p>UR, Castellano: AGUA</p> <p>Terminos iberos: UR (agua), UR (tierra), LUR (no encontrado), URBA[sa] (cenagal), URETA (inundacion), URI (lluvia), URIN (grasa), URKA (horca).</p>

lur

Nabera	<p><i>lehor</i> hitzaren bilakaeratik ez badator (kasu honetan nahiko modernoa litzateke), badaiteke UR/LUR aurkaketa izatea besterik gabe, <i>iz/giz</i> eta horrelakoen ereduari jarraiki. Azken kasu honetan, erro arkaikoa litzateke</p>
Seguro	<p>Lur hitzak hiru sustar ditu, lehen aipatutako “u” eta “r” eta “l”. Azken sustar hau uretara zuzentzen da, “ur” sustarrera. Euri eraso gogor batek luzatzen badu, lurra aseaz bigundu eta etanda, uretarako zuzenbidea darama, erreka ibaiak lokazten dituela.</p>
Zubiaga	<p>Ilu/loi da soiltasunean, honi Erra/oru “sola” gehitzen zaio, lur datorrela.</p>
Mujika	<p>Indarra neurri duna(rr), meakian(u). Meakiak dituzten bizimen indarrak dira. Lurrarren meakiak, biokimikaren oñarriak direnak. Itz onen esan naia: Gaidun, gauzen oñarria, atsedean geltokia, biziak dituenak.</p> <p>Indarra(r)meazki baretua(lu). Meazkia indarra bizidunekin.</p>

elur

Nabera	<p>*jela-ur, “ur jeltua” esanahiarekin.</p>
Kapanaga	<p>*ed-ur izan daiteke, uraren bilakaera</p>
Seguro	<p>“lur” eta “elur” izadian ain ezberdinak izanik, euren joera izadian berdina dira. “elur” hitzak “me” sustarretik jasotako “e” izkia darama. Itz auek daramazkiten “lur” sustarrak soburu berdinekoak diran ala ez jakiteko, izadiaren adierazpena joko degu. Elurra epeltzen dijoala, astiro, poliki poliki ur biurtzen da, elur itzaren “l” sustarra uretara zuzendu da.</p>

Zubiaga	Lehengo egitura beretik dator, e- epentesia daroa edukinaren bereizgarri.
Ihitz	Ez lur
Mujika	Soin aldakorra duena, edo soina biguña duena.

IZ ERROA

Nabera	<i>argia eta izatea</i> adierazten du, lehenik eta behin; halere, egia da toponimian, sarritan, erreka eta, oro har, ura adierazten duela (agian ZI erroaren alderantzketaren ondorioz).
Kapanaga	*iz oinarritzko erroetako ere bada, izatasuna ere adierazten duena. Garrantzitsuena: *b-iz-i (bizi) adibidez.
Seguroa	Eguerdiko eduzkiari aurre zaure begiratzea arriskutsua zaigu. Bere “iz” edo iztara indartsu batez, begiek malkoz bustiz gañera, itsutu egin gaitzke. Eguzkiak sortzen duen “iz” indartsu hau sustar bat da eta sortzen duena, “egizki”
Zubiaga	Iz izio adizkeraren erroa da. Utu/iz deribatzen da, Utu iduzkiari bai dagokio egunero izio eta itzali ekintza.
Ihitz	Izena izana da, hitzena hitza(re)na den bezala, non zuzen, zintzo eta jator hitz egiteak argitasunera eramaten gaitu: izan, izari, izakari, izaki, gizaki. Euskara-euskera, izana-izena.
Mujika	Kemen menderatzaillea(z), izadiana(i). Izadi eginkera edo oroimena, kemen menderatzaillea dana. Esan naia: Argi, ura. Argi iratzaillea eta irazaldian urak.
Arnaiz	IZ: Castellano: AGUA Terminos iberos: ISEN (ser, estar, tener), PIZTU (no encontrado)

Izen

Nabera	(bizk., UZEN): beharbada *iz-en etimologiarekin, “izatetik eratorria” esan nahi du, hau da, norbait beraren izatetik dagokiona. Beste hipotesi bat *iz-zen litzateke, “zenaren izana”
Zubiaga	Utu/hitz ere arketipo beretik dator, eta hareago hitz izen denean, ots, iz gehieingo kasuan izen bai-da eta “izena duen guztik bai-du izana.
Ihitz	Lehenago IZAN eta gero IZEN. Izen daukan guztia lehenago delako.
Mujika	Dana(ena) argizkoa(iz). Argitik artua dagota. Esan naia: izen zeintasuna ta argi sortzaillean izaera. Izenak aipatzen ditu.

Piztu

Nabera	*bizitu. Esanahia: bizi eragin. Beharbada *bizi-azu etimologiarekin.
Kapanaga	Antzinean eta bizkaieraz gaur egun: <i>biztu</i> , hau da, *b-iz-tu, <i>bizi</i> hitzarekin lotuta

Zubiaga	Iz gizatuez gero, bizi da eta izetu partizipioa barriz, biztu>piztu. Ba arketipo aurrizkituak seinutzen dio gizatasuna, jainko ekintza iz dela, gizakiena, barriz, biz/bizi izan dadin.
Ihiza	biztu, bizitu, bizi, bizi izan, orduan hildu, hil du, hil izan. Non bizi eta hil ba dira, (b)izan eta hil(an) baino lehen
Mujika	Ekintza(tu), menderatzaillea(z), izadiko gai batetan(p). Esan naia: Argitu

IN ERROA

Nabera	egintza adierazten duen adizki nagusia, aurrizki gisa ere ageri dena (inausi, *in-hautsi; etab...)
Kapanaga	Bizkaieraz oraindik jatorrizko esanahiari eusten dio: <i>in = ein, egin</i>
Zubiaga	<i>Inu/in</i> dator hizkunez, Inu amatar arkeipoari bai-dagokio sorkuntza. Hagatik esan ohi da “Inkoak in, gizakiak egin” eta <i>indazu</i> otoizten.
Ihiza	Euskal aditzaren 4 bukaeretako bat: -gon, -i, -in, -tu
Mujika	Adimen eginkera izan, eginkera asten da, adimena lanean iartzen danean. Esan naia: Eginkera izan.
Arnaiz	IN (contraccion de "egin"), Castellano : HACER Terminos iberos : IN (hacer), EGIN (hacer), ERAKAI (motivo), ERAGIN (no encontrado)

egin

Nabera	a) lehen hipotesia: *(e)-gin. Hau da, ekintza adierazten duen GIN erro arkaikoa, hasierako <i>e</i> hori (epentetikoa) gero ezarria litzatekeelarik. b) bigarren hipotesia: *ekai-in, “gauzatu, eitea eman” esangurarekin.
Zubiaga	<i>Ka</i> arketipoak giza kai/gai gaitasuna aurrizkitu du, <i>ekintza</i> berea delako
Ihiza	Ekin-en ondorengo bigunagoa
Mujika	Egia(egi), eginkera(n) ari dana. Euzkeran, egin , egia aginkera iarri. Oarmena ta adimena aginkera baretuak izaten diranean, orduan egia Bere izaera azaltzen da.

eragin

Nabera	*ira-egin (eginarazi, eginaren ondorioa)
Zubiaga	<i>Egin</i> aditz gizatua indartu beharra zegoen, eta hizkuntzaren osakuntzan aurrizki edo preposizioak erantzi zitzaizkien, <i>era-</i> kasu honetan; “ondu” izan balitz, “at.ondu” izan ziteken, Erra eta Utu arketipoen ber-eraginez.
Ihiza	Era = etxeRA, indarraren bidezko higidura
Mujika	Arauz gauza egiteko bidea egin. Gai gabeko esan naia du. Esan naia: Erraz, ezarri

ABA ERROA

Naberan	*a-b-a. Toponimian “hasiera, printzipala eta amaiera” adierazten ditu.
Kapanaga	Sendi izen gehienak “aba” erroarekin lotuta daude: <i>asaba, osaba, izeba, iloba, alaba, arreba, neba, ugazaba</i> (etimologia: <i>madre de leche</i>)
Zubiaga	<i>Ba</i> giza baita edo psikea da arketipoz eta <i>Ka</i> gaikiak materialtasuna bezala, <i>Ba</i> seinuak gogakera markatzen du eta abegi eta senidetasun edo gurasotasun berezia adierazten du.
Ihitzza	ANAI(b)A - (a)NEBA – ARREBA. -n-ak artasuna -gizona- azaltzen du IZEBA – OSABA -b-ak emetasuna -emea- azaltzen du. Osaba da izebaren bidez. A®BASO – (a)BURASO (guraso) - ASABA -b- horrek ere azaltzen du ama edo emearen bidezko transmisioa. Senidetasun maila ABA atzizki/aurrizkiak ematen du, emetasuna/amatasunaren bidez.
Mujika	Baiezko eginkera gaidun(ab), baiezkoa(a). Indarra gaidun. Irudia artzen duena.
Arnaiz	ABA: Castellano: BOCA, SACERDOTE, BOSQUE Terminos iberos: ABA (boca,sacerdote), NABA (valle,llano,barranco), ISABA (ISA-ABA,bosque quemado,bosque de pinos o abetos)

neba

Naberan	*anae-eba, honako esangurarekin: “ebaren (emaren) jaiotzatiko kide anaia”
Kapanaga	Agian: <i>eme-aba->emeba ->meba->neba</i>
Zubiaga	Inu amatar arkeipoak aina du lehen alaba eta, zeruan <i>Nana</i> bezala, lurrean <i>Neba</i> gizatzen da urrentasun abegia adierazten.

izeba

Naberan	*ide-eba, honako esangurarekin: “ebaren parekoa” (aitzin grekoz: <i>ise-ba</i>)
Kapanaga	*iz-eba
Zubiaga	<i>Izoa</i> da hitz zaharra eta jainkotiarra: egokitzat eman zuten, <i>izeko</i> bezala, <i>izeba</i> eta <i>osaba</i> ere gizatzea, lurtarren familia aipatzekoan.

EGU ERROA

Naberan	*e-uku, “leku ezkuturik ez duena”. Edo, agian, *ekai-u(ru), “ortziko materiala”. Batere segurtasunik ez.
Kapanaga	Go errotik dator. Nahiz eta multsorik ahulena izan ahoskitiko hau EGU izena dugu bere jainko zentzuaren bidez, usterik behinenak markaturik utzi dizkiguna. <i>Argia</i> esan nahi du.

Seguroia	Egu eguzkiarengatik jasotako sustar bi ditu. Eguzkiaren “eguz” susterretik “egu” jasotzen da. Izatez “egi” itza behar luke, eguzkiaren “u” hizkia, “i” dalako.
Zubiaga	Zeru lurren arteko mugari egi deritzaio, hortik <i>egipeko</i> eguzkiari Eki/ <i>Egu</i> deitzea, <i>Utu/iduzki</i> izenak urrun gelditu zirenean.
Ihiza	EGUARTEA = eguna dagoen bitartea. EGUAZTENA = egu azkena, egu <u>ostena</u> EGUERDIA = eguren erdia EGUNA = egurena EGUNSENTIA = egunez betetako sena EGURATSA = eguren hatsa, arnasa, atmosfera EGUZKI = eguzko zati, eguren zati, eguren izpi. NEGU = egurik ez? OSTEGUNA = ortzeren egurena EGU eguarte, eguaztena, eguerdi, egun, egunsenti, egurats, negu, osteguna (ondorioz ostirala)..., eguzkiari argia ematen dion hitz garran-tzitsua, mitologiaren ARGÍ eta ORTZI (ost, ortz, ostri, urtz, urtzi...)ren parean dagoena.
Mujika	Izena gai gabea baieztua(u) iarri oarmena. Ebaki gabekoa(eg) gauza iarri. Zeruko oarmena ta indarrak.
Arnaiz	EGU: Castellano:HOY, DIA, VIENTO, ESPERA. Terminos iberos : EGU (hoy,dia ,viento),EGUZKI (efuski? sol?) ,EGUNA (dia), EGUA (rio), EGUAIZA (aire),EGUAN (en el dia),EGUARGUI (plena luz del dia).

eguzkia

Naberan	*egu-iz-ki, “eguren argi-ekai”; *egu-auz-ki, “eguren ekai altua”...(ki = ekai, gai). Oihenartek *egu-ki eman zuen.
Kapanaga	* <i>egu-iz-ki</i>
Seguroia	Eguzkiko “iz” izkiaren tokian “n” izkia sartzen da, egunaren argitan murgiltzeko. “n” sustar onek, egunaren argitan murgiltzen gaitu.
Zubiaga	Egu izenaren ondorengoa <i>Eguzki</i> da, Utu formarena Iduzki den bezala. Jainkoengan ere, lureko familian bezala, guraso zaharrak eta guraso gazteak txandutzen ziran etxeko gobernuan.
Mujika	EGU IZ KIA. Gauza ortziko argia zabaltzen duna. Izar. Itz au eguzkia ta ehuzkia idazten dira ere. Orrelaxe idazten dira; eu ehu ta egu.

eguna

Naberan	*egu-en (<i>egutikakoa</i>); *egu-une (argiunea)
Kapanaga	* <i>egu-n-a</i> . Agian, argiarena esan nahi du.
Zubiaga	Egu formak <i>Eguen</i> izan zuen bere gehiengoa, Eki formak Ekain bezala, eta aldi baten euren kultoa izango zuten. <i>Eguen</i> > <i>egun</i> dator, baina <i>egu+une</i> ere analizatu daiteke.
Mujika	Zeruko oarmena edo indarrak igieran, iartzen direnean. Eguna, oien ibillera ta egiñak. Egu gai dun ta bakoiztua

EUSK ERROAK

Naberan	*eusko-era; edo agian *eusko-elea. <i>Eusko/euzko</i> gure herriaren izenari dagokionez, *AUZ-KO balitz (latinez Ausci deitua) “menditarrak edo goi haranetakoak” esan gurako luke)
Kapanaga	* <i>eusk-era</i> , <i>egusk</i> , eguzki hitzaren bilakaera izan daiteke, eguzki-hizkuntza, mintzaira argia.
Seguroლა	Eus hitzaren sustarrak hiru dira: “mee” sustarretik jasotako “e” sustarra; urak sortzen duen “uu” sustarretik jasotako “u” sustarra ea aizeagandik jasotako, zirkintza adierazten duen “z” sustarra. Eus sustarraren ardatza “u” da; “u” onek aurrizki daraman “e” sustarrak, “u” edo “ulu” au meetzen duela, leundu egiten du, eztitu. Eta atziki daraman “z” sustarrak izkuntzarako, izketarako zirkintza ematen dio. EUZ.
Zubiaga	Auski/Oska geografiako izenak dira Ainamendi inguruan, I. gizaldian euskararen muga egiten zuten unean, hain zuzen. Auski > Autx dator eta <i>autxerdera</i> zan Autx herriara <i>erduen</i> (etorkinen) hizkera. Auski/Oska herrietan egiten zen hizkera <i>euskara</i> da. Hortik datoz <i>uaski/-vaski</i> formak ere. <i>Ota</i> > <i>otx</i> dator tokizenetan eta “altu” esan nahi du.
Mujika	Euskera euskaldunon izkuntza gaiduna, egunenerekoa, arrunta. EUZKERA: Euzkera euskaldunon izkuntza filosofikoa, eta iakintzan erabili bearrekoa.
Ihitz	ESKUERA/ESKUARA , esku, aginte eta poterearen hizkuntza. Geroko dugu EUSKAL jatorrizko hitza, -a-, -e- baino lehenago dagoelako: aeiou, eta euskara egiten den eremuaren erdian, Hondarribia, Oiartzun..., euskal delako ere. Gero hasi ginen euskera ahoskatzen erdigunetik urrunago dagoen Bizkaiko bizkaieraz adibidez. 30 hitz ezberdin jasota euskara hitzerako. EUS GAL dugu aukera bat: GAL zelta, baina EUS ...? Eskuera/euskara/euskera...k, ortzadarraren zazpi hizki daukan hizkera. Hitzaldi oso bat behar duen hitza.
Arnaiz	EUSK: (E, ERE?), (UTS-KO?): Castellano: DE LOS PUROS? Terminos iberos: no encontrados.

ERD ERROA

Nabera	*er-era; edo agian *er-elea (ER hotsak, toponimian, hegala, bazterra, kanpoa adierazten du; beraz, <i>erdera</i> , kanpotarren hizkuntza izan daiteke esanahiari dagokionez.
Zubiaga	<i>Erdu</i> “etorri” da erduak etorkinak dira. Erduen hizkuntza <i>erdera</i> da. – <i>era</i> atzizkiak nolatasuna adierazten du <i>euskera</i> eta <i>erdera</i> formetan.
Ihiza	ERDARA dugu geroko jatorrizko hitza: erdi era, erdipurdi ulertzen zaien hizkera, hizkuntza izatera heldu barik, HATSieran ulertu ez eta ondorioz ezagutzen ez genituelako.
Mujika	Er: Indarra mugatua , akatsa ta ezezko gauzak adierazten dizkigu ERDERA: Izkuntza akatsduna, arrotza.
Arnaiz	ERD(I) : Castellano: mitad, retoñar Terminos iberos: ERD(E) (en medio).

HATS

Nabera	HATS: *aho-ats (jatorrizko, atsa, arnasa, arima) HASI: *e-atse (atsedena utzi) HASIERA: *hasi-era (hasteko modua)
Zubiaga	Ats/As “arnase” gizakiak <i>Erra/aire</i> orokorretik birietan hartzen duen parte bizikorra da. Bizi mailan eta gogakeran erritualki datorkion eragin zehatza adierazteko, zazpigarren arketipo biurtu zuten hizkuntzan. As/hasi dator hizkunez, umea, asa “arnasea” hartzen dueneko, hasten delako berera bizitzen. Haste uneari hasi.era deritzaio, ots, hasi aldia, ez hasi modua.
Ihiza	HASI: Hats i. -I haui, hatsa adiztu egiten duen hizkia, letra HASIERA: Hatsaren era HATS: Haizea -bizia- hartzearen berezko doinua. HATSA: Hasiera. ArnA(t)SA: Hartu hatsa. Arnastu gabe 5 minutu asko jota eman dezakegu. AT(s)IJA: aatxiss! ATSEDEN: Hats eten. Hats ez dena. Atsedena hartu dugunean, hatsa eten egiten dugu. ATSEGIN: Hats egina gaudenean, besteenganako <i>feelina</i> sortzen dugu. ATSEKABE: Hats gabe. Atsekabe gaudenean zeozter ez daukagu: eguratsa bera.